

Kale inkesta zoriontasunaz.mp3

Diruak zoriona ematen al du? Kaleko inkesta.

–Kaixo, galdera bat: Zure ustez diruak zoriona ematen al du?

Lur

–Nik uste dut diruak bizitza errazten digula eta erosoago bizitzen laguntzen digula, baina ez zoriontsuago egiten gaituela. Garbi daukat arazo asko ezin direla diruarekin konpondu; beraz, aberatsak ez dira zoriontsuagoak. Haiek ere une latzak pasatzen dituztelakoan nago.

–Eta zuk, zer diozu?

Arkaitz

–Ba, nire ustez, ez dira nahastu behar dirua eta zoriontasuna. Gizarte kontsumista honetan, benetako zoriontasuna zer den ahazten ari zaigula uste dut. Baliteke batzuk zoriontsuak izatea gauzak erosten dituztenean, baina berehala pasatzen den sentrazioa da, ez ditu zoriontsuago egiten.

–Arratsalde on. Zure ustez diruak zoriona ematen al du?

Sara

–Ez dut uste diruak zoriontasuna dakarrenik, baina egia da asko laguntzen duela. Izan ere, bizitzeko behar adina ez badaukazu edo bizitzeko tokirik, jatekorik edo janztekorik ez badaukazu, zailagoa da zoriontsu izatea. Gure inguruan, gehienok dugu hori guztia; beraz, iruditzen zait zoriontsu izan beharko genukeela.

Jon

–Nik ez daukat garbi dirua zoriontsu izateko behar-beharrezkoa denik, baina iruditzen zait lagundu, laguntzen duela. Askotan entzuten dugu diruak ez dakarrela zoriontasuna, baina nik nahiago dut Groutxo Marxen esaldi hura: "Badaude dirua baino gauza garrantzitsuagoak, baina hain dira garestiak!". Izan ere, diruak nahi duguna lortzen laguntzen digulakoan nago.